

5. KANALAK:

Enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko behar ditugu kanalak. Hau ezinbestekoa dugu segmentu-merkatuei haien balorezko proposamena helaraz diezaiogun.

Baina, zer lortu nahi dugu kanalekin?



Kanalak izateak enpresa guztietan funtsezkoa da. Gure kasuan, hurrengo funtzioa beteko ditiuzte:

- Bezeroei enpresa baten produktuak eta zerbitzuak ezagutaraztea.
- Bezeroei enpresa baten balio-proposamena ebaluatzen laguntzea.
- Bezeroei balio-proposamen bat ematea.

Komunikazio, banaketa eta salmenta kanalak bereiz daitezke kanalen artean. Ordea, guk komunikazio-kanala erabiliko ditugu. Barnean, hainbat zatitan banatuko ditugu hauek, bere funtzioaren arabera.

- Pertsonak gure existentziaz jabetzeko, marketina erabiliko dugu. Erandiok aldizkari bat ateratzen du astero. Honetan, elkarrizketa bat egitea pentsatuta dugu, horrela publizitate moduan erabiliko dugu. Baina ez da izango gure publizitate bakarra.
- Baita Google ads kontratatuko dugu. Google-en iragarkiak txertatzeko doako zerbitzua da. Honekin, bazkideak irabaztea errezagoa izango da.
- Bestetik, sare sozialak izango ditugu: Facebook (@enheserandio), Instagram (@enheserandio) eta Twitter (@erandioehnes). Gure enpresarako sare sozialek enpresaren ikusgarritasuna merkatuan handituko digu, negozioaren ospea hobetzen edo zerbitzuen ezaugarriak komunikatzeko. Hau da, marketing modua. Batez ere honekin gazteen artean lortuko dugu ikusgarritasuna.
- Adinekoen ikusgarritasuna lortzeko, Erandiotik kartelak jartzea pentsatu dugu.

Aurrekoa garrantzi handikoa izanda, ez da bezeroekin komunikatzeko erabiliko dugun era bakarra.

- Kanal propio bat erabiliko dugu (online motakoa). Hau da, webgune bat eskainiko diegu, horrela daukatzen zalantzak ase dezaten. Funtzionamendu erraza duen eta intuitibua den web-orria izango da, ahalik eta jende gehienak erabil dezan. Orrialde horrek bi ataletan bananduta egongo da: “enpresa” (enpresaren baten jabea bazara) eta “langileak” (bezeroa bazara, hau da, beste enpresa batzuek eskaintzen dituzten zerbitzuak kontsumitzeko asmoa duen pertsona bat). (link-a: <https://sites.google.com/ikasle.eus/enhes/enhes>)



EHNES!

ENHES

^ GUZTIAK

- Pino fruta-denda
- Arrantza arrandegia
- Arriagako dorretxea

ERANDIOKO ENPRESAK



PINO FRUTA-DENDA (klik hemen)



Arrantza arrandegia (klik hemen)



- Bestetik, esan beharra dago ez dugula erabiliko denda fisikorik.

Gure zerbitzua eskuragarria izateko eta modu autonomoan erabiltzeko egina badago ere, baliteke zalantzak sortzea. Hemendik dator gure hurrengo bi kanalak:

- Telefono zenbakia eta Gmail helbidea. Hau eskaintzen diegu bezero guztiei, zalantzak edota zeozer komentatzeko izatekotan gurekin kontaktuan jartzeko. Gmaila eguneko 24 orduretan izango dute eskuragarri. Ordea, deiak hartzeko ordutegi zehatz bat izango du: 8:30tik 16:30ra.

